

Berrikuntza komertziala babesteko programa, "Ardoa-Basque Wine Office"-k sustatua

SARRERA

Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legearen 7.4 b) artikuluan xedatutakoaren arabera (azken xedapenetako 6.a), zeinak EAEko Ogasun Nagusiaren Printzipio Arautzaileen Legea aldatzen duen, HAZI Fundazioa (hemendik aurrera HAZI) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Fundazio bat da, eta bere sortze xedea da lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza sustatu, bultzatu eta garatzea bere jardute eremuan, hots, lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa eta itsasertz ingurunean eta elikagaien industrian, horiek balioztatzen eta natur zein kultur ondarea mantentzen lagunduz.

Osasunaren Mundu Erakundeak, joan den martxoaren 11n, Covid-19ak eragindako osasun publikoaren larrialdi egoera nazioarteko pandemia mailara igo zuen. Deklarazio horren ondorioz, 2020ko martxoaren 14an argitaratu eta jarri da indarrean 462/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duena.

Egoera horrek ekonomia eta enpresa sektore ugari eragin die eta eragiten ari zaie, horien artean egonik edarien sektorea, zeina oso krisi larria nozitzen ari baita, nazioarteko eskaerak behea jo duelako, eta HORECA kanala guztiz gelditu delako.

Egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, ARDOA-Basque Wine Office foroaren esparruan sektorearekin adostu ondoren, hainbat neurri bultzatu ditu euskal edarien sektorean ondorio negatiboak minimizatzeko; horien artean daude, besteak beste, finantzaketa eskuratzeko aukera, erakundeen komunikazio eta sustapen ekintzak, upategiei tokiko eta nazioarteko azoketan eta merkatuetan sustapen ekintzak egiteko laguntza, eta merkaturatzeko bide berriak, *Ardoa Lurraldea* Ataria sortuz, komertzializazioan eta berrikuntzan laguntzeko.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak "*Mugagabe Ardoa*" programa jarri du martxan, zeina laguntza programa bat baita, EAEko nekazaritzako

elikagaien arloko ETEen eta mikroETEen berrikuntza komertzialaren maila hobetzea xede duena, tokiko ardoaren, sagardoaren eta garagardoaren sektoreei zuzendua.

"Mugagabe Ardoa" programa "Berrikuntza komertzialerako laguntzen" bidez egituratzen da, disrupzioa bilatzeko, enpresen arteko lankidetzak sustatuz, partzuergoak edo antzekoak sortuz, eta enpresa txiki eta ertainen eraldaketa digitala bultzatuz bezero eta kontsumitzailearekiko salmenta, zerbitzu eta komunikazio prozesu guztietan, eta omnikanalitatearen garapena lortzeko.

Gainera, Programa hau aipatu enpresei laguntzeko jardueren barruan kokatzen da, negozioa sortzea eta merkatuak lantzea helburu, Euskadiko 2020ko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoan jasotzen denaren arabera. Proiektua, berez, pilotua denez, HAZIren bidez artikulatuko da.

"MUGAGABE ARDOA" PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

"MUGAGABE ARDOA" PROGRAMAREN HELBURUA ETA XEDEA

"MugaGabe Ardoa" Programaren xedea da mahastizaintza eta ardogintzaren, sagardoaren eta garagardoaren sektoreetan berrikuntza komertziala bultzatzea, teknologiaren, enpresa kudeaketaren eta arlo komertzialaren egituraketaren bidez, banaka edo enpresen arteko lankidetzaren bitartez, partzuergoak sortuz, plataformak garatuz, etab.

APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA ETA NORMATIBOA

Programa honetan jasotzen diren laguntzek arau hauek bete behar dituzte:

- a. Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuen 107. eta 108. artikulak *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 352/1, 2013-12-24koa).
- b. BATZORDEAREN 2019/316 ERREGELAMENDUA (EB), 2019ko otsailaren 21ekoa, nekazaritza sektorean Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuen 107. eta 108. artikulak *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa.
- c. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, (aurrerantzean LGS), eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, LGSren Erregelamendua onartzen duena (hemendik aurrera, RLGS), aipatutako LGSn dauden kudeaketa printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazio printzipioei dagokienez; hori guztia, aplikazioa zehazten duen 3.2 artikularen bigarren paragrafoaren arabera.

- d. Horrez gain, oinarri espezifiko hauetan jasota ez dagoen guztirako, HAZIK kontraprestaziorik gabeko diruzko entregak egiteko Oinarri Orokorren dokumentuan xedatutakoa aplikatuko da.

PROGRAMAREN ONURADUN DIREN ERAKUNDEAK

“*Mugagabe Ardoa*” Programan araututako laguntzen onuradunak pertsona fisiko edo juridiko pribatu hauek izan daitezke: Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizpen guneak dituzten nekazariak edo nekazari elkarteak, nekazaritza kooperatibak edo nekazaritzako elikagaien enpresak, ardo, sagardo eta garagardo sektoreetakoak.

Onuradunak banaka edo talde baten bidez sartu ahal izango dira Programan, eta, Programa honen ondorioetarako, Berrikuntza Komertzialeko Talde bat osatuko dute, zeina behar bati erantzuteko edo aukera jakin bat aprobetxatzeko eratuko baita, Programaren bidez diruz laguntzen diren jardueretako bat ezarriz.

Pertsona fisiko edo juridikoen talde horiek nortasun juridikoarekin edo gabe eratu ahal izango dira, eta gutxienez bost kidez osatuta egon behar dute: pertsona fisiko edo juridiko bereziak, elkarren artean harreman organikoak, funtzionalak edo ekonomikoak izan beharrik ez dutenak.

Talde horietan, parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoetako guztiak eta bakoitza onuraduntzat hartuko dira, eta Programa honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Elkarre horiek, eskabidean, berariaz jaso beharko dituzte hartu dituzten konpromisoak, baita bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta, halaber onuraduntzat joko dira. Edonola ere, elkarrearen pertsona ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, elkarreari, onuraduna den heinean, dagozkion betebeharrak betetzeko behar besteko ahalmenekin. Elkarrearen ordezkari edo ahaldun bakar horrek sinatu eta aurkeztuko du eskabidea, Berrikuntza Komertzialeko Taldearen izenean.

Pertsona onuradun bakoitza proiektu indibidual bakar batera baino ezingo da aurkeztu, eta hainbat proiektu kolektibotara, Berrikuntza Komertzialeko Talde desberdinen bitartez. Edonola ere, enpresa bat ezingo da lau proiektu baino gehiagoren espedienteetara aurkeztu, maila indibidualean eskatutako proiektua ere kontuan hartuta.

Gainera, baldintza hauek ezartzen dira:

- a) Diruz lagundu daitekeen gastu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu duen edo ez eta lortu duen edo ez jakinaraztea administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatuei.

- Gainera, uneko zerga ekitaldiaren eta oraingo zerga ekitaldiaren aurre-aurreko bi zerga ekitaldietan jasotako *minimis* laguntza guztien berri eman beharko du.
- b) Inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikadura Industrien Erregistroan (NEIE) sartutako establezimenduetan egitea dira, edo aipatutako erregistroan inskribatutako establezimenduetan lortutako ekoizpenei lotuta egon behar dira.
 - c) Inbertsioak ez dira hasita egongo 2020ko martxoaren 14an baino lehenago, data horretan argitaratu eta jarri baita indarrean 462/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duena.
 - d) “Ardoa Lurraldea” Programara atxikitzea onartzea.
 - e) Krisian dagoen enpresatzat hartua ez egotea, 2019ko abenduaren 31n, krisialdian dauden enpresa ez finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu laguntzei buruzko Jarraibideetan (2014/C-249/01) ezarritako definizioaren arabera.
 - f) Dagokion arloan, proiektuak ingurumen eta higiene eta osasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzea.
 - g) Proiektuak dagozkion inbertsioei aplikatu beharreko arau komunitario guztiak betetzea.
 - h) Egin beharreko jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko araudi espezifikoaren araberrako arauak bete behar dira (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa, eta 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babestekoa), eta inbertsio proiektuen aurretik ingurumen inpaktuaren eta higienearen ebaluazioa egingo da, hala badagokio, baita kasuan kasuko inbertsioei aplikatu beharreko arau komunitarioak ere
 - i) Konpromisoa hartzea inbertsioa eta/edo gastua egin dela eta proiektua egin dela egiaztatzeko behar den dokumentazio guztia HAZIren, Eusko Jaurlaritzaren, Europar Batasunaren edo ezarritako Kontrol Organoen esku jartzeko.
 - j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo horren erakunde autonomoek izaera bereko laguntzei dagokienez hasitako itzulketak edo zehapen prozeduratan sartuta ez egotea edo horrelakorik amaituta ez edukitzea.
 - k) Ez edukitzea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, eta ez edukitzea horretarako legezko inolako debekurik, sexu bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, Seigarren azken xedapenean xedatutakoarekin bat etorriz.
 - l) 6/2019 errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, betetzea, berdintasun plan bat eduki beharrari buruz, derrigorrezkoa bada.

- m) EAEko Administrazioak eta horren menpeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan, dirulaguntzak itzultzeko prozedura edo zehapen prozedura batean zehaztutako kopuruen ordainketari dagokionez egunean egotea. Betebehar horien ordainketan egunean dagoela joko da zorrak geroratuta edo zatituta badaude eta, gainera, zorra osorik estaliko duen bermea eratu bada, interesak eta gastuak barne.
- n) Ez edukitzea konkurtso deklarazioa eskatuta, edozein prozeduratan kaudimengabetzat joa ez egotea, ez egotea konkurtsoan deklaraturik, salbu eta horretan hitzarmen batek efikazia hartu badu, esku hartze judizialaren menpe ez egotea edo ez egotea desgaituta Konkurtsoari buruzko 22/2003 Legearen, uztailaren 9koaren, arabera, eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako inhabilitazio aldia amaitu gabe.
- o) Zehapenik ez izatea, ebazpen irmo baten bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galarazten dionik.
- p) Kausaren batean errudun deklaratu direlako, administrazioarekin egindako edozein kontratu irmoki suntsiaraztea eragin ez izana.
- q) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak duten pertsonak Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen 1/2014 Legearen, ekainaren 26koaren, kasuren batean sartuta ez egotea, edo Hauteskunde Erregimenari buruzko 5/1985 Lege Organikoan, ekainaren 19koan, edo gai hori arautzen duen araudi autonomiko batean ezarritako baldintzetan araututako hautetsia ez izatea.
- r) Zerga egoitza ez edukitzea erregelamenduz zerga paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
- s) Ez egotea berreskuratzeko agindu baten zain, Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne merkatuarekin bateraezina dela.

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN ZENBATEKOA

Programa honek 700.000 € ditu.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK

Programaren bitartez, besteak beste, honako jarduera hauek lagunduko dira diruz:

- a. Berrikuntza komertziala
 - Sustapen sistema berriak gauzatzea.

- Diseinu eta funtzionalitate berriak gehitzea.
 - Banaketa metodo berriak erabiltzea.
 - Merkaturatzeko modu berriak martxan jartzea.
- b. Marketin digitala
- Ekintza eta estrategia publizitarioak edo komertzialak, komunikabideetan eta Interneteko kanaletan.
- c. Merkataritza elektronikoa
- Produktuak edo zerbitzuak bitarteko elektronikoen bidez saltzea, esaterako, sare sozial, webgune eta app-en bidez.
- d. Zirkuitu laburretan merkaturatzea
- Zirkuitu laburretan edo hurbiltasunezkoetan merkaturatzea, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko eta bitartekorik gabeko (edo gutxienekoarekin) salmentan oinarrituta.
- e. Salmentak dinamizatzea
- Energia ematen duten eta salmentak sustatzen dituzten ekintzak.
- f. Salmenta, merkatu eta produktuen berrikuntza

Laguntzetatik kanpo geratzen dira hauek:

- a. Webgune berriak sortzea
- b. Bideragarritasun azterketak, oro har
- c. Prestakuntza, onuraduna teknologia berritzaile batean trebatzera zuzendutakoa izan ezik.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Kostu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- a. Kanpoko langileen kostuak.
- b. Material, ekipamendu edo instalazioen kostuak, proiekturako erabiltzen diren heinean eta horrek iraun bitartean.
- c. Proposatutako jardueren funtzionamendu kostuak.
- d. Aholkularitza kostuak.
- e. Proiektuaren garapenaren ondoriozko kudeaketa gastuak (parte hartzen duten enpresen dinamizazio eta sustapen jarduerak, aurretiazko azterketak, hornidurak, etab.).

Kudeaketa gastuei dagokienez, proiektuaren gainerako kostu subentzionagarrien %10ean egotzi ahal izango dira.

Diruz lagundu daitezkeen kostuen zenbatekoa deialdira aurkeztu den pertsona onuradun bakoitzeko xehatuko da, onuradunak banaka edo elkarte bidez (Berrikuntza Komertzialeko Taldea) aurkeztu diren kontuan hartu gabe.

Gainera, elkarte bidez aurkeztutako proiektuek txosten osagarri bat gehitu beharko dute, Berrikuntza Komertzialeko Taldearen proiektuan aurreikusi diren kostuen zenbatekoa modu agregatuan jasoko duena.

Programan, lagundu daitezkeen kostuen kontzeptutik kanpo geratuko dira hauek:

- a. BEZa eta gainerako zeharkako zergak.
- b. Alerta Egoera deklaratu aurretik egindako kostu oro.

Erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea

- a. Programaren xede diren jarduketak azpikontratatu egin daitezke, 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, 29., 30. eta 31. artikuluetan eta Legea garatzen duen Erregelamenduaren 68. artikuluan xedatutako baldintzak eta debekuak errespetatuz, diruz lagundutako jardueraren izaeraren arabera, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %50eraino gehienez ere.
- b. “Diruz lagundu daitezkeen” gastuaren zenbatekoak gairitu egiten baditu sektore publikoaren kontratazio araudiak unean-unean kontratu txikirako xedatutako zenbatekoak, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, salbu eta, ezaugarri bereziak tarteko, merkatuan ez dagoenean behar adina erakunde egin beharrekoak egiteko. Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera egingo da, eta, egindako aukeraketa proposamen ekonomikorik onuragarrienaren aldekoa ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.
- c. Hiru eskaintza eskatu izanaren eta kontratistaren azken aukeraketaren egiaztagiria laguntza eskariarekin batera aurkeztu beharko da. Eskaria aurkezteko unean azpikontratazioa zehaztu gabe edukiz gero, HAZIri bidaliko zaio, proiektuaren amaieran aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera.

PROGRAMAREN LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA INTENTSITATEA

Hauek dira zehaztutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa eta intentsitatea, kontuan hartutako lerro eta enpresa bakoitzeko:

- a. Pertsona sustatzaile indibidualei zuzendutako laguntzak. Laguntzaren ehunekoa zenbateko subentzionagarriaren %60 izango da. Gehieneko zenbatekoa 3.000 € izango da enpresa bakoitzeko.
- b. Programa honen ondorioetarako Berrikuntza Komertzialeko Talde moduan eratzen diren enpresa elkarte, partzuergo edo antzeko egiturei zuzendutako laguntzak, *Programaren Erakunde Onuradunen* atalean definituta dagoen bezala. Laguntzaren ehunekoa zenbateko subentzionagarriaren %60 izango da. Gehieneko zenbatekoa 5.000 € izango da enpresa bakoitzeko.

Emakume Nekazarien Estatutuaren 8/2015 Legea betez, emakume baten titulartasuneko edo titulartasun partekatuko banakako pertsonak sustatutako proiektuak, edo pertsona juridiko batek sustatutakoak, baldin eta emakumeen esku dauden partaidetza sozialak gutxienez %50 badira, bi elkartekide izanez gero, edo behintzat orekatua gainerako kasuetan, laguntzaren ehunekoa diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren %66 izango da. Edonola ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 3.000 €-koa izango da enpresa bakoitzeko, norbanakoek sustatutako proiektuetarako, eta 5.000 €-koa Berrikuntza Komertzialeko Talde baten bidez bultzatutako proiektuetarako.

Pertsona onuradun bakoitza proiektu indibidual bakar batera baino ezingo da aurkeztu, eta hainbat proiektu kolektibotara, Berrikuntza Komertzialeko Talde desberdinen bitartez. Edonola ere, enpresa bat ezingo da lau proiektu baino gehiagoren espedienteetara aurkeztu. Ondorioz, jasotzeko gehieneko zenbatekoa ezingo da 18.000 € baino gehiago izan enpresa bakoitzeko.

PROGRAMARI LAGUNTZA ESKATZEKO EPEA ETA NOLA AURKEZTU

Programan sartu ahal izateko baldintzak betetzen dituzten enpresek deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu beharko dute eskaria eta gainerako dokumentazioa, hau da, 2020ko ekainaren 26ko 9:00etatik 2020ko urriaren 30eko 15:00ak arte.

Laguntza eskariak HAZIko zuzendari nagusiari helaraziko zaizkio, telematikoki, www.onekin.eus webgunearen bitartez.

Laguntza eskariak aurkeztu diren hurrenkeran tramitatu eta ebatziko dira, espediente osoa kontuan hartuta, funtsak agortu arte.

Enpresa eskatzaileek eskubidea izango dute, HAZIrekiko harremanetan, euskara edo gaztelania ahoz nahiz idatziz erabiltzeko, eta HAZIk hizkuntza berean egingo die.

ESKARIAK ETA DOKUMENTAZIOA

Laguntza eskatzeko formularioa eta beharrezko dokumentazioa web helbide honetan eskuratu daiteke: <http://www.onekin.eus>.

Eskatzen den informazioa eta dokumentazioa I. Eranskinean dago. Eskarian aurkeztu beharreko txostenaren edukia eta dokumentazioa.

II. Eranskinean, Berrikuntza Komertzialeko Programaren proiektu motei buruzkoan, “MugaGabe Ardoa” Programan sartu litezkeen zerrenda zehaztu gabeko bat aurkezten da.

ZUZENKETAK

HAZI konturatzen bada aurkeztutako dokumentazioan errore, akats, zehaztasun falta edo konkrezio faltaren bat dagoela, enpresa eskatzaileari jakinaraziko dio helbide elektronikoz, eta 10 egun naturaleko epea emango dio zuzenketa egin dezan, adieraziz zuzenketa egin ezean, eskaria ez dela onartuko.

Aipatutako epea zuzenketarik egin gabe igarotzen bada, HAZIk ebazpena egingo du, adieraziz eskaria ez dela onartu.

BALORAZIO ETA HAZTAPEN IRIZPIDEAK

Erakunde onuradunak (pertsone fisiko edo juridiko pribatuak: nekazariak edo nekazari taldeak, nekazaritza kooperatibak edo Euskal Autonomia Erkidegoan ardo, sagardo eta garagardo sektoreetako ekoizpen establezimendua duten nekazaritzako elikagaien enpresak) esleitzeko oinarri gisa balioko duten balorazio eta haztapen irizpide orokorrak honako hauek dira:

Memoria teknikoaren kalitatea	30
Proposamenaren egokitasuna	70
<ul style="list-style-type: none"> - Ekimenaren proposamenean elkartu diren enpresen kopurua: <ul style="list-style-type: none"> o ≥ 20 enpresa o 10 - 19 enpresa o 5 - 9 enpresa 	15 10 5
<ul style="list-style-type: none"> - Elkartea osatzen duten enpresen tipologia: <ul style="list-style-type: none"> o Hiru azpisektoreen (ardo, sagardoa edo garagardoa) edo Jatorri Izendapenen presentzia..... o Bi azpisektoreen (ardo, sagardoa edo garagardoa) edo Jatorri Izendapenen presentzia..... 	5 3
<ul style="list-style-type: none"> - Programako produktuen lehengaien jatorria <ul style="list-style-type: none"> o Lehengaien %85 baino gehiago EAEkoa da..... 	10
<ul style="list-style-type: none"> - Berrikuntza maila (irizpideak metagarriak dira) <ul style="list-style-type: none"> o Enpresaren jarduera komertzial berria o Enpresa ez sektorialen arteko lankidetzak (B2B, zeharkako lankidetzak katean, etab.) o Teknologia berriak gehitzea (digitalizazioa) o Euskadiko kalitate markek babestutako beste produktu batzuekiko lotura..... 	+10 +5 +5 +5
<ul style="list-style-type: none"> - Neurriaren jarduera eremua <ul style="list-style-type: none"> o Nazioarteko proiektzio bakarrik o Proiektzio mistoa (nazioarteko eta/edo estatala eta/edo lokala) 	10 5
<ul style="list-style-type: none"> - Iraupena / legatua <ul style="list-style-type: none"> o Irauteko asmoa duen jarduera o Programaren/jardueren iraupena > 2 hilabete 	5 3
- Guztira:	100

“Mugagabe Ardoa” Programan aurreikusitako laguntzak emateko prozedura elkarren segidako konkurrentzia da. Laguntza eskariak aurkeztu diren hurrenkeran tramitatu eta ebatziko dira, espedientearen dokumentazio osoa kontuan hartuta, funtsak agortu arte.

Laguntzan sartu ahal izateko, “Programaren laguntzaren zenbatekoa eta intentsitatea”-ren atalean gutxienez 60 puntuko puntuazioa eskatzen da.

PROGRAMA GAUZATZEKO EPEA

Programa gauzatze epea 2020ko abenduaren 31raino luzatuko da gehienez ere. Dokumentazioa entregatzeko azken eguna 2021eko urtarrilaren 30a izango da.

PROIEKTUEN ANALISIA

Eskariak jaso ondoren, langile tekniko arduradunek edo ARDOA, BASQUE WINE OFFICEko ebaluazio organoak eskariak baloratzeko txosten bat egingo dute. Txosten horrekin batera, erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentuen zerrenda egongo da. Txosten horretan xehaturik egon beharko dira, batetik, aurkeztutako dokumentazio guztia eta haren egiaztapen administratiboa, eta, bestetik, dokumentazioaren balorazio teknikoak eta, Programan zehaztutako balorazio eta haztapen irizpideen arabera, ikusi diren eta garrantzizkotzat jo diren beste aspektu batzuk.

ARDOA, BASQUE WINE OFFICEko ebaluazio organoa hauek osatuko dute:

- Hazi Fundazioko zuzendari nagusia edo hark eskuordetutako pertsona
- Hazi Fundazioko Sustapen Sektorialeko Zuzendaritzako teknikariak
- Hazi Fundazioko Ekintzailetza, Berrikuntza eta Lurralde Zuzendaritzako teknikariak

Ebaluazio organoa hil bakoitzeko 2. eta 4. asteetako ostegunetan elkartuko da, eta gutxienez bilera egin baino 15 egun lehenago jasotako espedienteak ebaluatuko ditu. Jaieguna izanez gero, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

Ebaluazio organoak jasotako espedienteetara buruzko balorazio txosten bat egingo du, pertsona onuradunari gutxienez 60 puntu eskatuko zaizkiolarik laguntza osoa lortzeko eskubidea izateko, eta ebazpen proposamen bat egingo dio HAZIko Zuzendaritza Nagusiari, hurrengo asteleheneko edo, jaieguna bada, hurrengo egun balioduneko 15:00ak baino lehen.

EBAZPENA

HAZIko zuzendari nagusiak, ebazpen proposamenean jasotako eskarien balorazio txostenak ikusita, ebazpen bat emango du, eta proiektu bakoitzaren erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio, txostena jaso eta hurrengo hiru egunetako edo, jaieguna bada, hurrengo egun balioduneko 15:00ak baino lehen.

Ebazpenean zehaztuko da eskatutako dirulaguntzak onartu edo, hala badagokio, ukatu egin diren; lehenengoen kasuan, erakunde onuradunak, diruz lagundutako proiektuak eta dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak zehaztuko dira. Halaber, laguntza ukatzen bada, ebazpenean ukatzeko motiboa agertuko da.

Bai onartutako bai uko egindako laguntza eskarien zerrenda HAZIren webgunean argitaratuko da, eta bertan jasoko dira proiektuaren akronimoa, erakunde eskatzailea, emandako puntuazioa eta emandako laguntzaren zenbatekoa.

ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Erakunde onuradunek betebeharrak hauek dauzkate:

- Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun naturaleko epean erakunde onuradunak dirulaguntza hori berariaz onartzen ez badu, laguntzari uko egin diola ulertuko da.
- Emandako dirulaguntza proiektuaren xedera bideratzeko betebeharra.
- HAZIk, emandako laguntzaren xede den proiektua egin egingo dela eta eskatutako baldintzak bete egiten direla egiaztatze aldera, beharrezkotzat jotzen duen orotariko dokumentazio osagarria eta beharrezko eta komenigarritzat jotzen dituen nahi adina egiaztapen eska ditzakeela onartzeko betebeharra.
- Faktura osoak gordetzeko betebeharra, eta bost urteko epean –gastu hautagarriak egindako unetik zenbatzen hasita– faktura horiek HAZIrentzat zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarentzat eskuragarri edukitzea.
- Laguntzen xedea fiskalizatzeko funtzioa betetzeko, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Epaitegiari eska dezaketen informazioa ematea.
- Hemen araututako laguntzen xederako edo antzeko xede baterako dirulaguntza edo laguntzak, sarrerak nahiz baliabideak –beste edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribaturi dagozkionak– eskatu edo eskuratu izana HAZIri berehala jakinarazteko betebeharra.
- Laguntza emateko kontuan hartua izan den edozein baldintza edo egoera aldatu izana HAZIri berehala jakinarazteko betebeharra.
- Deialdi honen bidez emandako dirulaguntzaren jatorriari publizitate egokia emateko betebeharra.
- Diruz lagundutako proiektua egitean sortzen diren dokumentu eta euskarrietan hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzeko betebeharra.

PROIEKTUAREN KUDEAKETA ETA ENTREGAGARRIAK

1. **Proiektua gauzatzeko fasea.** Inbertsioak ez dira hasita egongo 2020ko martxoaren 14an baino lehenago, data horretan argitaratu eta jarri baita indarrean 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, Covid-19ak eragindako osasun larrialdia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duena.

Gainera, beharrezkoa da jarduera subentzionagarriak data horren aurretik hasi gabe egotea. Hala ere, erakunde eskatzailea jarduketak egiten hasi bada laguntzaren ebazpena eman aurretik, baina laguntzaren esleipendun suertatzen ez bada, bere gain hartuko du kostu osoaren ordainketa.

2. **Entregagarriak.** Laguntzen onuradun diren erakundeek betebeharra izango da eskarian deskribatzen diren azterlanak egin eta HAZIri bidaltzea. Entregagarriaren irismenean aldaketarik egonez gero, HAZIk aurrez izango ditu idatziz jasota eta onartuta.
3. **Itxiera.** Programa honetan zehaztutako epean eta moduan itxiko proiektua, alde biek onartutako aldaketak txertatuz.

Enpresa sustatzaileak txosten hauek kargatu beharko ditu telematikoki www.onekin.eus webgunean:

- Txosten xehatua, besteak beste, alderdi hauek jasoko dituen: proiektuaren garapena, inplementatutako ekintzak, ezarritako kronograma betetzearen maila, proposatutako helburuak betetzea, proiektua gauzatzeko arazoak, proiektuaren amaierako balorazioa eta etorkizuneko planteamenduak.
- Benetan egindako gastuak jasoko dituen memoria ekonomikoa.

Proiektuaren itxierako txosten eta memoriak, beranduen jota, 30 egun naturaleko epean entregatuko dira, proiektuaren amaiera datatik zenbatzen hasita. Hau da, 2021eko urtarrilaren 30ean.

Edonola ere, HAZIk enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo informazio oro eskatu ahal izango dio, edo ondoren bileretara deitu, proiektuaren amaierako ebaluazioa egoki egiteko.

Dokumentazio hori ikusita eta dagozkion azalpenak eginda, beharrezkoa balitz, HAZIk proiektuaren itxiera berrikusiko du, gehienez ere hilabeteko epean jasotzen duenetik.

ORDAINTZEKO BALDINTZAK

Diruz lagundu daitezkeen kostuen zenbatekoa honela ordainduko da:

- %50, proiektua esleitzeko ebazpenaren ondoren.
- Gainerako %50a HAZIk onartzen dituenean garatutako jardueren txosten xehatua eta dagokion itxierako memoria ekonomikoa.

LAGUNTZEN XEDEAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Laguntzen onuradun diren erakundeek justifikatu egin beharko dute jasotako funtsak laguntzaren oinarritzko xedera bideratu dituztela, diruz lagundu diren jarduerak amaitu eta gero, 3. puntuan xedatutakoaren arabera. “Proiektuaren kudeaketa eta entregagarriak” atalaren itxiera, zehazki, txosten xehatuarena eta memoria ekonomikoa, egindako gastua ordaintzeko fakturen edo egiaztagirien kopiarekin, eskariaren aurrekontuan definitutako kontzeptuen arabera multzokatuta.

BESTE LAGUNTZA BATZUK JASOTZEA

Programa honen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira xede berarekin beste administrazio publiko batzuek ematen dituztenekin. Proiekturako batera jasotzen diren laguntzen baturak ez du proiektuaren kostuen %90 gaindituko. Portzentaje hori gainditzen bada, araudi honen arabera emandako laguntzari gehiegizko zatiari dagokion zenbatekoa kenduko zaio. Nolanahi ere, barne merkatuarekiko bateragarri diren kategoria jakin batzuk zehazten dituen 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduan xedatutakoari jarraituko zaio, Tratatuaren 107 eta 108. artikulua aplikatuz.

Aurreko atalean adierazitakoa baloratze aldera, erakunde eskatzaileek jakinarazi egin beharko dute eskaria egiteko unean beste erakunde batzuei eskatuta edo haiengandik jasota eduki lezaketen edozein laguntza, izan xede bera duten proiektuetarako, izan xedearekin lotura duten proiektuetarako, edo izan beste eskari edo emakida batean proiektuaren parte direnetarako. Azken kasu horretan, proiektu desberdinen arteko bateragarritasuna, bikoiztasunak eta uztardura azaldu beharko dira. HAZIk eskubidea dauka dagozkion bideetatik gai honi buruzko egiaztapenak egiteko.

ALDAKETA

Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du laguntza eskarian eta emateko ebazpenean jasotako jarduketak egiteko; halaber, laguntza eskariaren baldintzetan izandako edozein aldaketa, edo emandako laguntzari uko egin izana, jakinarazi beharko dio HAZIri, gertatzen den unean. Aldaketa idatziz jakinaraziko zaio HAZIri, adieraziz zein diren aurreikusten diren aldaketak eta inplikazioak, balorazioa egiteko, eta, onartuz gero, laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezake.

JARRAIPENA ETA KONTROLA

Proiektuen exekuzioaren jarraipena, Oinarri hauetan xedatutako jardueren txostenak aurkeztuz egiaztatzeaz gainera, HAZIren ikuskapen eta kontrolpean jar daiteke, hala badagokio.

EMAITZEN JABETZA ETA ZABALKUNDEA

Proiektuaren barruan landutako informazioa, ezagutza eta emaitzak enpresa eskatzailearen jabetzakoak izango dira.

Emaitzen zabalkundea eta transferentzia biderik eraginkorrenetatik egingo dira, proiektuan jardundako aldeak berariaz aipatuz eta konfidentzialak diren aspektuak babestuz.

KONFIDENTZIALTASUNA

HAZIk konpromisoa hartzen du laguntza hauen esparruan landutako informazioaren, ezagutzen eta emaitzen konfidentzialtasunari eusteko, hala zehaztuta badago, eta legeak hala aginduta zabaldu behar ez badira behintzat.

Bereziki konfidentzialak izango dira onuradunari lotutako gai ekonomikoak, estrategikoak eta negozio arlokoak.

Politika publikoak (nekazaritzako elikagaien politikak) aplikatzeko metodologiak lantzen badira edo intereseko ezagutza sortzen bada, soilik xede horietarako eta onuradunari aurrez jakinarazita erabili ahal izango ditu HAZIk, eta onuradunak berriazko ezezkua adierazi ahal izango dio erabilpen horri.

EZ BETETZEA eta ITZULKETA

Erakunde onuradunek Programa honetan edo dirulaguntza gaietan aplikatu beharreko araudi orokorrean zehaztutako baldintzetakoren bat beteko ez balute, edo, dagokionean, laguntza emateko ebazpenean jasotako baldintzaren bat beteko ez balute, laguntza hori jasotzeko eskubidea galduko lukete, eta derrigor itzuli beharko liokete HAZIri ordu arte jasotako laguntzen zenbatekoa, gehi legezko interesak; gainera, beharrezkoa balitz, legezko eginbideak abiaraziko lirateke itzulketa lortzeko.

Nolanahi ere, artikulua honetan xedatutako ondorioetarako, ez betetzat joko da:

- Programan zehaztutako xedea edo laguntzaren xedeko jardueraren garapena justifikatzeko betebeharrak ez betetzea.
- Laguntza lortzea Programa honetan zehaztutako baldintzak eta eskakizunak bete gabe, edo laguntza ematearen ondorioz zehaztutako baldintzak bete gabe.
- Programan edo laguntza ematean xedatutako kontrol neurrietako edozein ez betetzea edo oztopatzea.
- Gastu hautagarriak epe barruan ez justifikatzea edo Programa honetan nahiz laguntza emateko ebazpenean exijitutako baldintzak ez betetzea.
- Diruz lagundutako jarduera egiteko zehaztutako epeak gainditzea.
- Proiektua amaitu aurretik bertan behera uztea, proiektuaren aurreko fase batean eskuratutako emaitza negatiboekiko lotura egiaztatu gabe.
- 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, 29. artikuluan jasotakoa ez betetzea.
- Proiektuan beste edozein desbideratze egitea, edo laguntza emateko ebazpenean xedatzen den beste edozein betebeharrak ez betetzea.

Itzulketa laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean egin beharko da, HAZI erakunde onuradunari Oinarri honetan xedatutako itzulketa arrazoiren bat gertatzen dela burofaxez jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Halaber, lehenago aipatu den itzulketa arrazoiren bat gertatuz gero, onuradunak galdu egingo du ordaintzeke egon litezkeen zenbatekoak kobratzeko eskubidea.

ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEAK

Erakunde onuraduna izango da, LAGUNTZAren xedeko jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz, edo jardueraren beraren ondorioz, gertatzen diren kalte pertsonal edota materialen erantzule bakarra; hala, HAZI ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Programaren harremanen informazioa

Andoni Erkiaga Agirre

www.onekin.eus

E-mail: info@basquewine.eus

Telefonoa: 945 003 240

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: ESKARIAN AURKEZTU BEHARREKO TXOSTENAREN EDUKIA ETA DOKUMENTAZIOA

Laguntza eskatzeko formularioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa web helbide honetan eskuratu daiteke: <http://www.onekin.eus>.

Hau da oinarrizko edukia:

- Identifikazio agiriaren mota eta zenbakia.
- Erakunde eskatzailea.
- Helbidea.
- Udalerria.
- Lurralde Historikoa,
- Telefono finkoa.
- Telefono mugikorra.
- Posta elektronikoa.
- Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren izena, abizenak eta NANA.
- Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren sexua (Emakume Nekazarien Estatutuaren 8/2015 Legea, urriaren 15ekoa betez eskatutako informazioa).
- Erakunde eskatzailearen zerga helbidea.
- Erakunde eskatzailearen bankuko datuak (IBAN).
- Erakundearen langile kopurua, generoaren arabera bereizita.
- Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala.
- Oharrak jasotzeko posta elektronikoa.
- Oharrak jasotzeko mugikorra.
- Jakinarazpen, komunikazio eta oharretarako hizkuntza.
- Proiektuaren izena.
- Eskatutako laguntzaren zenbatekoa.
- Proiektuaren lokalizazio eremua edo jarduketan helmuga (nazioartekoa, estatuala edo lokala).
- “Programaren Erakunde Onuradunen” atalean ezarritako baldintzak betetzen direlako erantzukizunpeko adierazpena.
- HAZIri baimena ematea administrazio eskudunean baieztatu, agertu edo egiaztatu dezan bai zerga betebeharrak betetzen dituela, bai Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta pertsona eskatzailearen identifikazio datuak betetzen dituela.
- Eskatutako laguntza lerroari buruzko datuak: ideiaaren deskribapena, garapen faseak, hartzaileak, kanpoko laguntzaileak, baliabide propioak, aurrekontu xehatua, lan plana (aurreikusitako kronograma eta gauatzeko epea) eta beste

datu batzuk (lehengaiaren jatorria); enpresarentzat merkataritza jarduera berria edo berritzailea den ala ez; programan sektorekoak ez diren edo balio kateko maila desberdinetako beste enpresa batzuekin lankidetzan aritzen den ala ez; teknologia berririk sartzen duen ala ez; ekintzak kalitate markekin babestutako beste produktu batzuekin loturarik duen ala ez.

- Erantzukizunpeko adierazpena, arauak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela eta laguntzaren eskabidean aurkeztutako adierazpenak eta dokumentazioa egiazkoak direla dioena, haren faltsutasunetik edo zehaztugabetasunetik eratorri daitekeen edozein erantzukizun onartuz. Ezingo da alegatu faltsukeria edo zehaztugabetasun hori eragin duten gertakarien ezjakintasunik.

Gainera, berrikuntza komertzialeko taldeek sustatutako proiektuetan (nortasun juridiko propiorik gabeko elkarteak):

- LANKIDETZA HITZARMENAREN kopia, ordezkariaren izendapenarekin
- Taldearen ordezkariaren izen-abizenak eta NANA
- Taldearen ordezkariaren sexua (Emakume Nekazarien Estatutuaren 8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, betez eskatutako informazioa)
- Erakunde eskatzailearen zerga helbidea
- Berrikuntza komertzialeko taldea osatzen duten enpresen zerrenda, erakunde bakoitzaren IFK, izena eta bakoitzak eskatutako zenbatekoa zehaztuta.
- Proiektuaren lokalizazio eremua edo jarduketan helmuga (nazioartekoa, estatala edo lokala).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Pertsona juridikoak

- IFKren kopia.
- Legezko ordezkariaren ahalorde eskrituraren eta NANaren kopia.
- Erakundearen eraketa eskrituraren eta estatutuen kopia, dagokion erregistroan zigilatuta.

Pertsona fisikoak

- NANaren kopia.

Gainera, oro har:

- Foru Ogasunekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Dagokionean, onartutako azken urteko kontuen kopia.
- Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuak eta proforma faktura justifikatiboak.
- Erakunde eskatzaileak, laguntza kuantifikatzeko, eman nahi duen beste edozein dokumentazio.

II. ERANSKINA: BERRIKUNTZA KOMERTZIALEKO PROGRAMAREN PROIEKTUEN TIPOLOGIA

Ondoren, “*MugaGabe Ardoa*” Programan sartu daitezkeen berrikuntza komertzialeko proiektu moten zerrenda bat aurkezten da, ez zehatza.

- Online azokak: Uzta eguna, plataforma guztietan, Upategien eguna...
- Dastatzeak sare sozialetan - Webinar moduan, adituek eta pertsona ospetsuek komentatuta...
- Salmenta kit bereziak formatuari eta prezioari dagokienez: beste produktu batzuekin uztartuta edo ez, esaerako, gaztarekin eta olioarekin.
- Argazki, logo, sustapen slogan... lehiaketak
- Zozketak... ardoaren loteria, VIP bisita, zure nitxoa upategian..
- Etiketa bereziak (legezkoak izan behar dira): Pandemiaren urteko uzta – Pandemiaren ondorengo I. urteko uzta...
- Sustapen gastronomia (Gatz Haranak atera duenaren antzekoa), plater bat prestatzea halako ardoarekin eta halako ardoaz lagunduta.
- Upategien eta lursailen enoturismo birtuala...
- Aurrerantzean Pandemiaren Ondorengo I. Urteko Uzta erosteko bonuak...
- 2. Faseko enoturismo pack-ak: bisita lursailera – upategira – bazkaria – afaria – gaua ematea.
- Sustapen berriak: errealitate birtuala, errealitate areagotua, bideoak, podcast...
- Ordaintzeko modu berriak: app, Apple Pay, Pay Pal, Google Pay...

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

